

Hemen dago

Arratsaldeko bostetan EGIN Txotx zabalduko da Etxebarria Parkean. Etengabeko festa izango da, egun osoan, goizaldera arte. Sagardo besterik dastatu nahi ez dutenak joan daitezke ere, sarrera ordaindu barik.



Bilboko Sagardo Festa hemen dago. Gora-beherak alde batera utzita, arazoak ahaztuta, oztopo guztiak gaindituta, EGIN Txotxek aurrera egingo du gaur, arratsaldeko bostetatik aurrera. Jakina denez, Bilboko Etxebarria Parkea topagune berezia izango da, egun batez, sikiera, Gipuzkoako sagardotegi asko Bizkaiko hiriburu honetan lan egingo dutelako. Musika, janaria, giro ederra, fanzineak, argazki erakusketa, sagardoa. Eta jendea, Euskal Herriko leku guztietatik etorrita. Dana prest, beraz, jendearen zain.

BILBO
A. OKARIZ

inportantecnetariko den DDT; Beti Erne. Gasteizkoak, oso ezagunak hauek horko festekin batera, egitarau alternatibo bat prestatzen dutelako beti; Napartheid; Inma-Bigarren; Zazpi Baietz. Cizaña eta MOC; Ekintza Zuzena, asken maketekin; Askapena eta Boltxebike; Zabaltzen, bertan Esan Ozenki, Oihuka, Elkar eta IZ bilduz; Basajaun; Pozoin disketea; eta Prensa Latina.

Hauekin batera Iparraldetik etorritako Antton Paulus, Piztu Elkarrea eta Irulegi Bilboko Etxebarria Parkean izango dira, antolakuntzak presentzia hau bereziki azpimarratu nahi duelarik: «Eurentzat —diñote— bai dela gogorra etortzea, bide luzea eta neketsua egin behar baitute, hotza eta gosea pasatuz.

Beste datu garrantzitsu bat: Kontzertua ikusi eta entzun nahi ez duenak ez du ordaindu beharrik. Holan bada, guztiak posible da hara joan eta txosnara sartu, sagardoa edateko —baita osteratxo bat egin dezake—, argazkiak, diskoak eta bestelako materiala ikusi ahal izateko— baina inork ez du, inondik inora, 1.500 pezeta balio duen sarrera pagatu behar.

Afaria, pintxoak, tortilak eta abarrekoak aparte dira, beraz, hori dela eta EGIN Txotx mota eta adin guztietako jendearentzako jaia dugu.

Minutu bateko bideoa

Bestelako zehaztasunak oso ezagunak dira. Esan, bai, aste osoan zehar bertsolariak gaurko emanaldia prestatzen aritu direla eta gaur, eguerdian, Kafe Antzokian bilduko direla gauza guztiak elkarri ongi lotzeko.

Bestaldetik, hamar izen izango dira gaur protagonista: Fundiziyue, Martxoak 31, Amen, Pilt, Ipar Rap-Eroak, Latzen, Iluna Beltz, Kash Bad, Kaptien Egurrak eta Lugari, kontzertua eskainiko dutenak, hain zuzen ere. Kontzertuaz ere, zera aipatu behar: bideo pantailan talde guztietako minutu bateko bideoa proiektatuko da, bakoitzak bere aurkezpena egin dezan. Suerte handia guztiak.

Neketsua izan bada ere, eta oraingoz izango da gaurkoan, zabalteko ordua heldu arte, prestaketa guztiak aurrera joan dira astean zehar, dena here lekuan egon dadin jende askok buru-belarri egin baitu lan. Hau tamainu honetako festa batean guzti normala da, egia, baina kasu honetan eguraldia ere kontra aritu da. Hala eta guztiz ere, hemen ez da inor izutu, guzti alderantziz, lan bikoitza egin da.

Festak eskainiko duena argi dago. Parkean lau karpa ipini dira, eta horietariko bat gure lan-kidea den Pablo Cabezak egunko argazki batzuekin beteiko da.

Erakusketa honetan Cabezak egindako 125 argazki erakutsiko dira, euskal musikari buruzko ikuspegi orokorra emanez: «Egia da —diño berak— posible den neurrian, behintzat, zeren eta nahiko zaila da honelako lan bat egitea. Gainera, negatiboak ikusi ditudanean, herri honen rock zaletasuna oso zabala izan dela konturatu naiz eta, nahiz eta bostehun fotograma eskaini, motz gelditzen da».

Erakusketa honen ibilbidea 82an hasi eta 95an bukatzen da eta errekorridu horretan bai No, Basura, Odio edota Vulpes-ikusi ahal izango dira. Horiakin batera, Kortatu, Hertzainak, Barricada, Cicatriz eta Eskorbuto, azken bi hauek modu berezi batez aurkezten direlarik. EH Sukarra, Belladona, Su Ta Gar, Urtz, Delirium Tremens, Potto, Matraka eta Tahures Zurdos, besteak beste, erakusketa honetako zati batzuk dira.

Erakusketa zuribeltzez egin da, baina Pablo Cabezak esaten duen moduan, «hurrengorako kolorez egingo dugu».

Iparralde ere Etxebarrian

Ondoan eta inguruan merkatu txiki kokatuko da, diskoak, fanzineak, kamisetak eta material alternatibo ugari jarri. Zehatz-mehatz, hauxe izango da bertan egongo diren zerrenda: Mundanal Ruido H.C., Bilboko; Exkixu, mota askotako materialarekin; Gor, Iruleko; Anti-Toxie; Estatu barruan banatzaile

FESTAKO GUNEAK

Karpa guztiak arratsaldeko Setan irekiko dira. Autobusentzako aparkalekuak inguruetan jarriko dira. Komunak eta paperontziak ugari izango dira inguruetan. ZAINDU PARKEA!!



1. JAIALDIRAKO KARPA

- Setan Pilt Ipar Rap-eroak
Fundiziyue Martxoak 31
Lugari Kaptien egurrak
Juna Beltz Amen
Kashbad Latzen
- 10,30 etan Elsaik
Tapia eta Leturia Band
Eskixu

- Eta gainera...
Sagardo kupelak
Bideo pantaila erraldoia
Txapelketako hamar taldeen bideo klip-en aurkezpenak
- Bertsolariak
Unai ITURRIAGA Jon MAIA
Aitor MENDILUZE Xabier SUKIA
Jesusman IRAZU Ibai ESOAIN
Igor ELORZA Beñat GAZTELURRUTA
Maddalen LUJANBIO Unai ORMAETXEA

2. AZOKA-ERAKUSKETA

- Maketak, diskak eta aldizkari musikalen azokatxoak
- Euskal Musikaren historia argazkietan (ehun argazkiik gorako erakusketa)

3. SAGARDOTEGIA

- Sagardo kupelak
- Makailu tortila, saiheskia, gazta intxaurrekin...

4. TXOSNA

- Karpa baten azpian txosna erraldoia
- Edariak eta bokatak

Dena prest dago festarako.

Jakini ETXEBARRIOSTE